

Amara Berri

Lapurketa aurrezki kutxan

Julen Arzelus (Ifnoa.: 454851)

gregorio Ordoñez kaleko Euskadiko Kutxan lapurtzera sartu ziren urriaren 27ko eguerdiko 13:43ak zirenean. Sukurtsal horretan bi langile eta bezero bat zeuden. Langileetako bat bere bulegoan sartuta eta beste jendeari harrera egiteko leihatilan. Bezeroa, bere alde-tik, aurrezki-kutxa barruko kutxazainetik dirua atera nahian zebilen.

Segurtasun gutxi

Gauzak horrela, bi lapurrak beren "lana" betetzera abiatu ziren. Bata kutxazainean zegoen bezeroarengana hurbildu zen, azken hau bulegotik atera ez zedin. Besteak, berriz, kutxako langilearengana jo eta pistola bat eskuan zuela, bertan zegoen diru guztia emateko agindu zion. Egoeraren benetako arriskuaz kontura gaitezen, leihatilako langile eta lapurraren artean kristalik eta antzekorik ez zegoela argitzea komeni da.

Lapurrek dirua eskuratu ondoren ihesari ekin zioten.

Eraman zuten diru-kopuru zehatzaren berri ofizialik ez badago ere, IRUTXULOK jakin ahal izan duenez milioi bat pezeta inguruan dabil.



Lapurketa joan den urriaren 27an gertatu zen, eguerdi partera.

Argazkia: Imanol Olegi

Amarako TAO

Hemendik gutxira TAO sistema Pio XII eta Mendeurrenaren plaza arteko kaleetan ezarriko da. Hori dela eta, kale horietan bizi diren auzotarrek, eskabide-orria bete eta Udaletxera bidali beharko dute.

Extremadurako eguna

Arcco merkatalgunean Etxe Erregionalen

hilabetea hasiko da bihar, hilak 8. Oraingoan Extremadurako folklorea, gastronomia eta produktuak izango dira ikusgai eta salgai. Goizeko 11.00etatik 13.00etara izango da.

Baztango Bira azaroaren 23an

Santiagomendi elkarteak antolatutako Bira azaroaren 23an egingo da eta ez azaroaren 9an aurreko alean adierazi genuen bezala.

Altza

Larraitz Garmendia (Ifnoa.: 391267)

Gazte-lekuko ekintzak

Gazte-lekuak ekintza ugari antolatu ditu azarorako, besteak beste, areto futbol, irratsaioak, hitzaldiak, ikastaroak... Ikastaroei dago-kienez, magia-ilusionismo ikastaroa antolatu dute aza-

rotik abendura arte. Ikastaroa ostiraletan egingo da. Bestalde, zintak grabatzen ikasteko ikastaro berezia antolatu da hil honetarako 18.00etatik 21.00etara. Magia erakustaldia egingo da azaroaren 7an, ostirala, arratsaldeko 18.30etan, eta hilaren 27an, «Abenturazko kirola»

izeneko hitzaldia emango da.

Eskalada ikastaroa

Astindari topalekuak eskalada ikastaroa hasiko du azaroaren 10ean. 12-16 urte bitarteko gazteek parte har dezakete 700 pezetaren truke. Informazioa eta izen ematea Astindari topalekuan.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación